

Abarrak

UNAI BREA

Erretzaileentzat

Thank you for smoking. Christopher Buckley.
Argitaletxea: Random House. 1994.

ETXEA ALDATU eta hiruzpalau urtera, ezustean, kutxa baten hondoan agertzen den liburu horietakoa da *Thank you for smoking* (Eskerrik asko erretzeagatik) eleberria. Ia-ia beste ezer eskura ez neukalako hasi nintzen irakurtzen eta... ze sorpresa atsegina! Ondo idatzia, inteligentea, ironikoa, umoretsua... Orain gutxi jakin dut egileak, Christopher Buckleyk, George Bush aitaren diskurtsoak idazten zituela, hura munduko presidentea zen garaian. Eta ezinegona sortu zait: nola gustatu zait horrenbeste halako tipo batek idatzitako zerbaite? Zer ez dut ulertu? Edo zer egin du txarto Buckleyk?

Berriz ekin diot *Thank you for smoking* irakurtzeari, enigma horiek argitu nahian, eta lehenengo kapitulua aski izan zait oroitzeko. Hasteko, primeran idatzita dago, eta hori bada asko, edukitik harago prosa on baten balio estetiko hutsaren defentsan hamaika ezta-

baidatan borrokatua naizen honentzat. Eta bestetik, Buckleyk ez zaitu behartzen posizio ideologiko garbi baterantz, nahiko libre uzten du irakurlea aukeratzeko garaian. A bai, barkatu, eleberria zeri buruzkoa den ez dakizula. Bada, protagonista Nick Naylor da, tabakoaren onurak aldarrikatzeko –eta arriskuak gezurtatzeko– sortua den elkarte bateko komunikazio arduraduna. Naylorrek koadrillatxo bat osatua du armagintzaren industriarentzat eta alkohol ekoizleentzat lan zikin bera egiten dutenekin: MoD, “heriotzaren merkataria” esan nahi duen akronimoa. Azken batean, Bushen beltz bategandik zer espero behar genuen bestela, norbanakoaren askatasuna da *Thank you for smoking*-en gaia, baina askatasuna, anglosaxoi era klasikoan ulertuta. Liberalismoa ere esaten zaio. Ez da nire gustuko jana, baina nobela gomendatzen dizuet berdin. ■



Nobelan oinarrituta
2005ean egin zuten
filmaren afixa.

Irakurri Elhuyar
aldizkaria
zure ordenagailu
berritik

eta %20 merkeago!

Uztaila baino lehen Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkari harrapide egiten bazara, urteko harpidetza % 20ko deskontua lortzeaz gain ordenagailu ultraeramangarri baten zozketan sartuko zara.

Harpidetza telefonoz egiteko, hots egin
+34 943 36 30 40 zenbakira.

Harpidetza internet bidez egiteko, sartu
<http://www.zientzia.net/elhuyar> webgunean
edo idatzi mezu bat harpidetza@elhuyar.com
helbidera.



zientziaren
ELHUYAR
komunitateak

mutualia
laguntzari esker

Zelai handi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tel.: 943 36 30 40 · Faxa: 943 36 31 44